



## ***ARRISKU EGOERA BEREZIETAN DAUDEN ADINGABEAK TXOSTEN BEREZIAREN AURKEZPENA***

***Arrisku egoera berezietan dauden adingabeak*** txosten berezia Arartekoan urte askotan zehar eta hainbat egoeratan bideratutako segimenduzko lan jarraituaren ondorioa da. Egoera horiek guztiak izendatzaile komuna dute, partekatutako ezaugarria: haurtzaroan eragina dute eta, bereziki, gure erkidegoan eskubideei dagokienez arrisku egoera berezietan dauden haur eta nerabeengan. Beraz, ez da haurtzaroari buruzko **diagnosi orokorra, arrisku egoera bereziko kasu jakin batzuei buruzkoa** baizik.

Laburpen-txostena da, egun arte haurtzaroaren inguruan argitaratutako Arartekoaren txosten berezi guztiak -edo haurtzaroari zuzenduriko atal berreziak dituztenak- etengabe aipatzen dituen. Hori dela-eta, zenbaitetan aurreko txosten monografikoen berezko luzera, sakontasuna eta xehetasuna alde batera utzi behar izan dugu txosten argiagoa eta zehatzagoa lortzearren, eta beharbada, baita dibulgazio maila handiagokoa ere.

Soiltasunaren aldeko aukera hori **txostenaren egituran** ere islatzen da: testuingurua aurkezteko bi kapitulu; hirugarren kapituluak, 13 azpikapitulutan banatuta, arrisku egoera bereziko gai, egoera edo sektoreak deskribatzen ditu eta horien azterketa ebolutiboa burutzen du (babesik gabe edo arrisku larrian dauden adingabeak; delituren bat egin eta neurri judizialak jaso behar dituzten nerabeak; hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak; haur eta gazteen buruko osasuna; elkarbizitza eskola ingurumenean; nerabe gay, lesbiana, bisexual eta transexualen arazoak). Laugarren kapituluan diagnosi edo balorazio orokorra egiten da, errepikatzen diren eta, gure ustez, aztertutako sektore guztietan edo askotan eragina duten arazo "komunak" azpimarratuz. Amaitzeko, Arartekoaren gomendioen kapitulua bosgarrena eta azkena da.

Haurtzaroaren inguruan aurretik egin ditugun txosten bereziekin alderatuz, honetan ikuspuntu sintetikoagoa eskaini nahi dugu, sektore bakoitzari buruz horren zehatza ez izan arren, egoera ezberdinen artean dauden loturak, euren artean zenbaitetan gertatzen den jarraipena, neurri handiagoan edo txikiagoan, partekatzen dituzten arazoak azalera ekar ditzan. Izan ere, loturarik gabeko egoerak direla pentsa genezake, euren artean inolako harremanik ez duten adingabez osatutako hainbat talde besterik ez direla. Ez da horrela, ordea. Kasu askotan, harrera-zentro batean aurkitu, edo eskolatik kanpo edo eskolan porrot eginez ikusten dugun haur edo nerabe bera, barneratze zentro batean aurkituko dugu bihar, edo, berriz ere, denbora igarota, arrisku bereziko beste egoera batean aurki dezakegu. Horrek agerian uzten du **gure gizartean oraindik bazterketa ibilbideak daudela**, haietako asko adingabearen hazkuntza eta premientzako euskarri eta laguntza elementu oinarritzakoa izan behar lukeen familiarik ez egoteari, haren gaitasun ezari edo besterik gabe haren porrotari lotuak.



Hori dela-eta, aztertutako sektore guztietan edo askotan eragina duten zeharkako elementu horietako batzuk azpimarratuko ditugu gaur, euren beharrei eskaintzen zaien erantzuna baldintzatzen baitute. Gure sistemetan gertatzen diren eta bereziki adierazgarriak diren 11 **ahultasun** dira (beraz, familia ingurunea bezalako beste elementu garrantzitsuak –funtsezkoak aztertutako egoera askotan- alde batera uzten dituzte, baita hainbat egitura faktore ere, kasu askotan arrisku egoera berezien jatorrian daudenak):

- 1. Zerbitzu espezializatuen eta ohiko artapen-sareen artean erantzukizuna hartzeko eta erlazionatzeko arazoak.*
- 2. Administrazio eta sail ezberdinetako erakunde eta zerbitzuen arteko koordinazio-arazoak.*
- 3. Baliabideek bete behar dituzten baldintzak edo prozedurak ezarri eta elementu esku hartzaile guztien erantzukizunak argitasunez zehaztuko dituzten arau-esparruen hutsa edo askieza.*
- 4. Planifikaziorik eza eta, batez ere, esku hartzeen eraginkortasuna balioesteko aukera emango duten ebaluazio publikorik eza.*
- 5. Hazten ari diren edo azkar hazten diren beharrezanein erantzun egokiak emateko zailtasunak.*
- 6. Konpentsaziozko neurriak (berdintasuna bilatzekoak) zein prebentziozkoak (ghettoak agertzea edo irmotzea saihestekoak) hartzeko erresistentziak.*
- 7. Detekzio eta arreta goiztiarraren arazoak.*
- 8. Irteera eta emantzipazio programen ahulezia.*
- 9. Informazioaren tratamenduan konfidentzialtasuna bermatzeko mekanismo eta irizpide argirik eza.*
- 10. Populazio osoari zabalduko umeen eskubideen kultura baten hutsunea.*
- 11. Adingabeen eskubideen defentsa eta bermerako egungo tresnen mugak.*

Kausa edo ahulezien azterketa hau baliagarria bada, **urrakortasun bereziko egoeretako adingabeen artapena hobetzeko arazo horiek konpondu beharko dira.** Hau da:

- Egoera horien jatorrian dauden kausak errotik konpondu (beraz, prebentzioa hobetu).
- Zerbitzu espezializatuen eta ohiko sistema edo sareen arteko lankidetzak hobetu.
- Honelako egoeretan esku hartzen duten administrazio eta zerbitzu ezberdinen arteko deskoordinazioa saihestu.
- Esku hartzeak planifikatu beharko dira, sistematikoki ebaluatu beharko dira eta, emaitzen arabera, beharrezko aldaketak egin.
- Egoera “berriei” ematen zaien erantzunaren azkartasuna eta egokitzapena hobetu.
- Egoera kaltetuenentzako konpentsaziozko neurriak hartu.
- Datuen tratamenduko konfidentzialtasuna bermatu.
- Urrakortasun bereziko egoeretako umekin esku hartzeko fase guztiak hobetu, batik bat hasierako faseetan (detekzioan, neurriak hartzerakoan) eta bukaerako faseetan, gizarteratzea eta emantzipazioa sustatzen baitute.



- Urrakortasun bereziko egoeretako adingabeekin esku hartzen dutenen erantzukizunak eta ekintza-esparruak argitu, profesionalen lan-baldintzak hobetuz.
- Umeen eskubideen gaineko kontzientzia sozial eta sentsibilizazio handiagoa lortu.
- Adingabe hauen eskubideen defentsa eta berme tresna eraginkorrak izan.

Horixe bilatzen dugu txosten honen **izaera orokorreko gogoetekin:**

- *Haurren eskubideei buruzko gizarte kontzientzia indartzea eta zabaltzea.*
- *Parte hartzeko eta entzuna izateko eskubidea praktikan jartzea.*
- *Familiei euren kide adingabeei dagokienez dituzten eginkizunak ondo burutzen laguntzea.*
- *Hautzaroarentzako arretan erakundeen erantzukizunak eta hirugarren sektorearen zeregina hobeto argitzea.*
- *Erakundeen lidergoa behar diren baliabideak sortu eta defendatzeko.*
- *Lortutako emaitzen ebaluazio sistematiko eta publikoa.*
- *Zerbitzuen eta profesionalen arteko koordinazioa hobetzea adingabeekin izandako esku-hartzeetan koherentzia handiagoa bermatzeko bide eraginkor gisa.*
- *Konpentsatzeko politikak eta bereizkeriaren edo estigmatizazioaren aurkako neurriak uztartzea.*
- *Urrakortasun egoera ezberdinen eta bilakaeraren aldiak aldiak azterketa.*

Gasteiz, 2011ko maiatzaren 3a